



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2014ko otsailaren 17a, astelehena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Angel del Hoyo Bravo, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jon Redondo Lertxundi zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, herritik kanpo dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2014ko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal araua
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2014ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Ordenantza Fiskalen aldaketa eta beren eranskinak.
- 4.- Onartzea, egoki bada, bide publikoa terraza, mahai-toki eta merkataritza jardueri atxikituta dauden elementuekin okupatu eta erabiltzeko udal ordenantza.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko bizitegirako lurzoru urbanoan kontsolidatutako eremu jakin batzuetako erabilera aldatzeko (erabilera tertziariorik bizitegitarako erabilera pasatzeko) jarduketak erregulatzen dituen udal ordenantzaren aldaketa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Errezabal-Munioeta bide publikoaren zati bat desafektatzea.
- 7.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboari buruz, bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
- 8.- Onartzea, egoki bada, aitorpen instituzional bat, Arkaitz Bellon Blanco presoaren heriotza dela eta.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2014KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL ARAUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko otsailaren 11n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro



(Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2014ko Aurrekontu Orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTUA

SARREREN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.075.100
2	Zeharkako zergak	50.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.492.126
4	Transferentzia arruntak	3.273.421
5	Ondarezko diru-sarrerak	211.862
6	Inbertsio errealen besterentzea	376.000
7	Kapital transferentziak	42.718
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		6.521.227

Gastuen egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.796.633
2	Ondasun arruntan erosketak	2.182.355
3	Finantzaketa gastuak	60
4	Transferentzia arruntak	1.123.461
6	Inbertsio errealak	418.718
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		6.521.227

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko 2014ko udal araua, Udalak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2014ko aurrekonto orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki



Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta ez bada inolako erreklamazio edo oharrik aurkezten, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, Ogasuneko batzorde informatzailean beren ordezkariak azaldutako arrazoiak gorabehera, aurrekontu hauek ez direlako beren talde politikoak nahi lituzkeenak.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2014KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko otsailaren 11n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren 2014ko plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda.



2.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden legegaxedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ETA BEREN ERANSKINAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2014ko otsailaren 11ko Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean diktaminatu da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2014ko otsailaren 11ko Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean emandako diktamenen arabera, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO ERABAKIAK HARTU DITU**, segidan adieraziko diren bozketen ondorioz:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Arraunetxe teknifikazio zentroko aisialdiko nasako apalak arraun ontziak eta antzekoak jasotzeko errentan emateko tarifei.

Tarifak, eurotan, hauek izango dira:

ALDIA	ONTZIAK < 5m		ONTZIAK > 5m		BATELA/ YOLA	SUP
	banakakoa	bitakoa	banakakoa	bitakoa		
urtekoa	300	360	342	450	522	270
sei hilabetekoa	229,50	270	256,50	310,50	391,50	202,50
hilabetekoa	51	60	57	69	87	45

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz; Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**].

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA osteguneko azokako salmenta-postuen tarifari: Orion erroldatuta ez daudenentzat 1,74 eurokoa izango da, metro karratuko edo frakzioko eta eguneko edo frakzioko.

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz.



Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**].

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal kiroldegia erabiltzeko tarifei: abonatuaren kuota %5 handituko da eta jardueren tarifak, %7,5.

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**].

4.- KONPONTZEA landa izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergaren karga-tasa ezartzerakoan egindako akatsa: ezarriko dena %1,10eko gehienezko tasa izango da, eta ez %1,12koa.

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**].

5.- Honako ERABAKIAK HARTZEA, HASIERAN BATEAN, bide publikoa terraza, mahai-toki eta merkataritza jardueri atxikituta dauden elementuekin okupatzeko tasari dagokionez:

a) A zonako mugaketa-eremuan ordezkarien hau egitea: kasko historikoaren partez, Goiko Kale.

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**].

b) Ortzaika auzoa A zonako mugaketa-eremuan sartzea.

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**].



c) %50eko hobaria aplikatzea udal erabilera publikoko lurak okupatzeko tarifetan A zonan kokatutako establezimendu publikoei.

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**].

d) Goiko puntuan aipatutako hobari hori ez aplikatzea beren mahaiak eta aulkiak barruan jasotzen ez dituzten establezimenduei.

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**].

e) Abaromendi kalea A zonako mugaketa-eremuan sartzea.

Erabaki hau **BOZKETA BIDEZ** hartu da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST ALDEKO BOTO**. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**. Kontrako botoak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI KONTRAKO BOTO**].

6.- JENDAURREAN JARTZEA hartutako erabakiak eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduari 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

a) **Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko idazkaritzan.

b) **Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) **Erreklamazioa aurkez dezaketenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) **Aurkezteko lekua:** Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.



e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta ez bada inolako erreklamazio edo oharrik aurkezten, hartutako erabakiak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BIDE PUBLIKOA TERRAZA, MAHAI-TOKI ETA MERKATARITZA JARDUEREI ATXIKITUTA DAUDEN ELEMENTUEKIN OKUPATU ETA ERABILTZEKO UDAL ORDENANTZA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2014ko urtarrilaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA bide publikoa terraza, mahai-toki eta merkataritza jardueri atxikituta dauden elementuekin okupatu eta erabiltzeko udal ordenantzari.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrik eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal ordenantza hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantza, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BIZITEGIRAKO LURZORU URBANOAN KONTSOLIDATUTAKO EREMU JAKIN BATZUETAKO ERABILERA ALDATZEKO (ERABILERA TERTZIARIOTIK BIZITEGITARAKO ERABILERA PASATZEKO) JARDUKETAK ERREGULATZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udal ordenantzan planteatzen den aldaketa bigarrena da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2014ko urtarrilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia



eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko bizitegirako lurzoru urbanoan kontsolidatutako eremu jakin batzuetako erabilera aldatzeko (erabilera tertziariorik bizitegitarako erabilera pasatzeko) jarduketak erregulatzen dituen udal ordenantzaren 2. aldaketari.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal ordenantzaren aldaketa hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantzaren aldaketa, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ERREZABAL-MUNIOETA BIDE PUBLIKOAREN ZATI BAT DESAFEKTATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2014ko urtarrilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Errezabal-Munioeta bide publikoaren zati bat desafektatzeari.

2.- ESPEDIENTEA JENDAURREAN JARTZEA, Toki Entitateetako Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 8. artikulua ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hilabeteko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Espediente hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

3.- ERABAKI HONEN BERRI EMATEA, banan-banan eta modu pertsonalizatuan, prozedura administratibo honetan interesatuta dauden guztiei, aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.



7.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOARI BURUZ, BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko otsailaren 11n emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA Xabier Uranga Salbide adjudikaziodunak, TXURIYA BELTZ entitate merkantilaren izenean, egindako diru-zorra likidatzeko aurkeztu duen proposamena. Diru-zor nagusi hori 37.430,04 eurokoa da eta honela ordainduko da:

- 7.430,04 euro, 2014ko otsailaren 28rako
- 10.000 euro, 2014ko abenduaren 31rako
- 10.000 euro, 2015eko abenduaren 31rako
- 10.000 euro, 2016ko abenduaren 31rako

Dagozkion berandutzako interesak ordaindu beharko ditu. Hori guztia entitate zordunak udal diruzaintzan depositatu zuen 29.500 euroko banku-abalaren bermearen pean.

2.- ONARTZEA Xabier Uranga Salbidek, TXURIYA BELTZ entitate merkantilaren izenean, aurkeztutako uko egitea eta, beraz, **ONARTZEA** 2011ko abenduaren 2an Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikineko taberna ustiatzeko sinatutako kontratu administratiboa bertan behera uztea, baldintza-orrian ezarritakoaren arabera:

- Adjudikaziodunak bere eskaintzan inbentariatzen dituen altzariak eta tresnak bere jabetzapekoak izaten segituko dute kontratua iraungi eta gero.
- Adjudikaziodunak, bere inbertsio planaren arabera, egiten dituen instalazioak eta obra zibila eta ostalaritzako ekipamendu industrialak Orioko Udalaren jabetzapekoak izango dira kontratua iraungi eta gero.



3.- ONARTZEA Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko duena. Honako alderdi hauek dira nabarmentzekoak baldintza-orrietan:

- Kontratazio honen xedearen iraupenaren epea, guztira, hamar urtekoa izango da, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita.
- Eraikinaren atzeko aldean dagoen eranskinak ez ditu baldintzak betetzen legezkoa izateko eta, hortaz, eraitsi egingo da otsailean. Eranskin hori eraisteko lanak Udalaren kontura izango dira.
- Gutxieneko kanona, kanon nagusiaren izaera izango duena urteko kontratazio aldirako, 17.700 eurokoa (BEZik gabe) izango da lehen urterako.
- Adjudikatzerakoan ezarritako kanona ezin izango da inolaz gutxitu, honako salbuespen honekin: ustiapenaren lehen urtean kanonaren zati proportzionala aplikatuko da; baina ustiapenaren azken urtean kanona ez da gutxituko eta osorik ordainduko da.
- Kontzesioaren iraungipena arte, urteko kanona aurreko urteko Kontsumo Prezioen Indize Nazionalaren (KPI) arabera eguneratuko da; horretarako erabiliko diren datuak Estatistika Institutu Nazionalak emandakoak izango dira, edo, hala badagokio, hura ordezkatzeko duen erakunde ofizialak emandakoak.
- Aukera dago, urtero, %25eko hobaria aplikatzeko adjudikaziodunak eskainitako inbertsio planaren urteko amortizazioan.
- Jendaurreko abisu eta oharra lau hizkuntzatan eman beharko dira: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.
- Hondakinak gaika birziklatu beharko dira: papera, ontzi arinak, beira, organikoa eta olio.
- Komunek izaera publikoa izango dute eta horiek txukun eta egoki mantentzea adjudikaziodunaren kontura izango da.
- Uztailean eta abuztuan egunero irekiko da establezimendua.
- Mantentze-klausula udal kanpinetako taberna-supermerkturako ezarritako bera izango da, eta eraikina urtero ikuskatuko da.
- Komunen erabilera publikoa oztopatzea oso arau-hauste larritzat hartuko da.



- Ostalaritza sektorean gutxienez bi urteko eskarmentua duela kreditatu beharko du adjudikaziodunak.
- Kontratazio organoak egingo du adjudikazioa, kontuan hartuta honako irizpide objektiboak (garrantzi gehiena dutenetik hasita, eta baremazioarekin):
 - 1.- Memoria teknikoa. Atal hau 0 eta 40 puntu artean baloratuko da.
 - 2.- Inbertsio-plana. Atal hau 0 eta 30 puntu artean baloratuko da.
 - 3.- Kanonaren hobekuntza. Atal hau 0 eta 15 puntu artean baloratuko da.
 - 4.- Hondartza ingurua dinamizatzeko proposatutako hobekuntzak azaltzeko txostena. Atal hau 0 eta 15 puntu artean baloratuko da.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AITORPEN INSTITUZIONAL BAT, ARKAITZ BELLON BLANCO PRESOAREN HERIOTZA DELA ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Aitorpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

ORIOKO UDALAREN ADIERAZPENA

Arkaitz Bellon Blanco elorriarra Cadizko espetxean, bere etxetik 1.100km-ra hilda agertu da otsailaren 5ean. Bere zigorra osorik betetzeko hiru hilabete falta zitzaizkionean. Zigorraren 2/3ak beteta zituen eta, beraz, aske egoteko baldintzetan.

Heriotza honen aurrean, Orioko Udalak bat egiten du Arkaitz Bellon Blancoren familiaren saminean/atsekabeen eta bere elkartasuna adierazten dio familiari une latz honetan. Era berean irmoki eskatzen du Arkaitz Bellon Blancoren heriotzaren inguruabarrak berehala argitu daitezela eta familiak informazio guztia ahalik eta arinen izan dezala gardentasun osoz. Horregatik, Orioko Udalak bat egiten du familiak eskatutakoarekin, konfiantzazko medikuak autopsian parte hartzea, alegia.

Orioko Udalak pertsona guztien giza eskubideak, bake eta bizikidetza egoera egonkorra defendatzen ditu, eta beraz, espetxe politikaren salbuespen egoerakin amaitzea aldarrikatzen du:

Egoera hau beti izan bada bidegabea, berau mantentzea erabat zentzugabea eta onartezina bihurtzen da gure herrian zabaldu den errealitate berrian. Arkaitzi gertatutakoa edonori edonoiz gerta dakioke eta ez du gehiago gertatu behar.



Gauzak honela, salbuespeneko espetxe politika honekin eta sakabanaketarekin amaitzea eskatzen dugu, herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duenarekin bat eginez. Sakabanaketa eta espetxe politika honekin amaitzeko garaia da.

Horretarako, eskaera hau luzatzeaz batera, inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu eskubide guztien alde egiten dugunon indarrak bat egitea sufrimenduaren soka luze honekin lehenbailehen amaitzeko.

Egun indarrean dagoen espetxe politika eta sakabanaketarekin amaitzeko gu guztiok beste urrats bat egitera goaz eta horretarako gonbidapena luzatzen dizuegu.

Adierazpen hau honako erakunde hauetara bidaltzea proposatzen da, giza eskubideen kontra doazen egoerak desagerrarazteko neurriak hartzeko: Ararteko, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, Bizkaiko Foru Aldundia, Eudel, Gotzaindegia, Amnistía Internacional eta Legebiltzarra.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Arkaitz Bellon Blanco presoaren heriotzari buruzko aitorpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsona batek hitza hartu ondoren, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,